

Hamabost urteko lanak, ia 4.000 zenbakiko fruitua

2001eko abenduaren 18an kaleratu zen Tolosaldeko euskarazko lehen egunkaria, 'Tolosaldean Egunero'; egunkari nazional izatera ere pasa behar izan zuen 'Egunkaria'ren itxiera medio // 4-5

Kudeaketa plana eta azpiegiturak egitea, onartuta

Enirio-Aralar Mankomunitateak osoko bilkura egin du, eta Eniriotik Igaratza arteko oinezkoen bidea ibilgailuentzat egokitzea erabaki du // 07

«Indarkeria nesken gurasoentzat da kezka iturri»

AXIER BLAGLIETTO
ARREMANITZ KOOPERATIBAKO KIDEA


Indarkeria matxistaz hitz egingo du, gaur, Berastegin Blaglietto adituak. Hartzaileak seme-alaba nerabeak dituzten gurasoak izango dira // 2



KIROLA

ESPEDIZIO HASTAPENEI BEGIRADA

1966. urtera atzera egin behar da irudiaren unera bidaiatzeko. Alpino Uzturre elkarteak Pirinioetara antolatu zuen bidaiako irudiak baliatuta proiektzioa izango da gaur, Tolosako kultur etxean, garai hura gogora ekarriz // 6



**RAFA GORROTXATEGIEN
ARTISAU TURROIAK**

Rafa Gorrotxategi

Tolosan
salgai:

Rafa Gorrotxategi
Obradorea:
Usabal Poligonoa, 14

Rafa Gorrotxategi
Denda:
Solana Kalea, 3

943 89 03 06 / www.rafagorrotxategi.eus

Rebeka Calvo Berastegi

Indarkeria sexista izango dute hizpide, gaur, Berastegin. Udalak antolatuta Arremanitz kooperatibako Axier Baglietto (Eibar, 1975) izango da bertan nerabezaroan dauden seme-alabak dituzten gurasoei zuzendutako tailerra eskaintzen. 18:00etatik aurrera egingo dute saioa, udal-txean. Gizartea eraldatzeko oinarriak etxean eraikitzen direla dio Bagliettok eta prebentzioa landu behar dela nabarmendu.

Zeintzuk dira gaur eskainiko duzun tailerreko helburuak?

Gurasoei zuzendutako gogoeta saio bat egingo dugu. Nire helburua da alde batetik, indarkeria matxista ulertzeko ikuspegia eskaintzea, indarkeria matxista zer den eta norainokoa den ulertzeko datuak ematea, alegia. Bestetik, gurasoentzat kezka iturri diren egoeren berri ere jaso nahiko nuke, horrela guraso bezala egin dezaketenen inguruko gogoea egin ahal izango dugu elkarrekin.

Eta zeintzuk dira bada, gurasoen kezka nagusiak?

Normalean indarkeria nesken gurasoentzat izaten da kezka iturri, mutikoen gurasoek gutxitan hartzen dute kezka bezala. Hori ere bada elementu bat guk landu nahi izaten duguna. Gure ustez arreta jarri behar zaio indarkeria eragiten duen horri, eta ez alde-rantziz. Kasu honetan, mutilok gara, indarkeria matxistaren eragile nagusiak eta beraz, mutil guztiekin lanketa egin beharko litzateke etxean horrelako jarre-rak gaitzetsi, detektatu eta aurre egiteko. Kontzientzia bat sortu nahi dugu.

Indarkeriaren iturburua ez jotzeko joera al dugu?

Orokorrean indarkeria matxistaren ikuspuntua horixe da. Ikusten duguna da burutik ondo ez dauden zenbait gizonen jarreratzat hartzen dela eta ez sistemikoa eta sistematikoa den indarkeria bat bezala. Honek guztiak



ENERITZ ALBIZU LIZASO/ UROLA KOSTAKO HITZA

«Seme-alabek esaten duguna baino, egiten dugun hori ikasten dute»

AXIER BLAGLIETTO ARREMANITZ KOOPERATIBAKO KIDEA

Soziologian lizentziaduna eta sexologian aditua da Blaglietto. 'Indarkeria sexistaren prebentzioa nerabezaroan' tailerra eskainiko du gaur, Berastegin, gurasoei zuzenduta.

lotura zuzena du eraiki ditugun maskulinitate eta feminitate erduekin. Ikuspegi oker horrek eragiten du gurasoak asko jota euren alabak babestea, baina ez euren jarrerak berrikustea edota semearen jarreraren arreta jartzea. **Gurasoek eguneroko jarrerak berrikusi beharko lituzkete, beraz.**

Garrantzitsua da ikuspegia za-

baldu eta gurasoei guraso bezala duten lana ikusaraztea. Neska-mutilei arreta jarri eta indarkeriaren gaia mahai gainean jartzea komeni da, baina nik nabarmendu ohi dut seme-alabek azkenean guk egiten dugun hori ikasten dutela, esaten dugun hori baino gehiago. Horregatik da garrantzitsua ikustea etxeetan elkarri erantzuteko espazioak sortzeko gai ote garen edo zein neurritan den posible errespetuzko harremanak lantzea. Ezinbestekoa da gatazkak edo desberdintasunak nola kudeatzen ditugun berrikustea edo zigorrak erabiltzen ditugun edo ez ikustea. Honek guztiak lotura zuzena du indarkeria matxistarekin.

Nerabeak gure erreflexua di-rela, alegia.

Kaletik ereduak jasotzen dituzte, baina abiapuntua etxean dago, eta etxean oinarri on bat jasoz gero, errespetatuak izan badira, eta gurasoekiko harre-

manean justizia eta borondate ona ikusi badute, seguruenik kanpora atera eta kalean beste eredu batzuk jasoko badituzte ere, beraien jarrerak desberdinak izango dira; mugak modu enpatiko batean jarriko dituzte, errespetuz jokatu dute...

Muturreko egoeratan bakkrik ematen al da indarkeria fisikoa?

Oso gutxi dira indarkeria fisikoa erabili behar izaten duten tratutxar emaileak. Guk beti esaten dugu indarkeria fisikoa eragiten duena tratutxar emaile ez eraginkor bat dela. Alegia tratutxar guztiak dira psikologikoak eta horiekin nahikoa izaten ez duenak jo behar izaten du kolpeetara. Horregatik jarri behar zaio arreta indarkeria ez muturreko horri, ez dago masailekorik eta abar, baina nola moldatzen gara etxean? Bestearen izaera errespetatzen al dugu?

Zer egin dezakegu beraz, indarkeria matxistari aurre egiteko?

Indarkeria matxistaren arreta gunea zabaldu behar dugu, indarkeria matxista gauzatzen da harreman pertsonaletan, erakunde eta toki askotan... eta ideologikoa ere bada. Gure aurreiritziekin edo begiratuekin, indarkeria matxista areagotzen ari gara. Indarkeria txiki asko dau-de; adibidez, gizarte hau eusten bada emakume askok zainketa lanak debalde egiten dituztelako da, besteak beste, eta hori ere indarkeria da. Lana ez aitortzea, gutxiestea, ezkutatzea... hori dena pertsonen autoestimuan du eragina eta hori ere indarkeria matxista da.

Geroz eta gehiago entzuten den mikromatxismoetaz ari al zara?

Mikromatxismoak dira bai, baina kontuz, batzuk pentsatu dezakete mikro izanagatik ez duela garrantzirik, ez dutela kalte handirik egiten, eta ez da horrela. Horren ikusgarriak ez diren indarkeriez ari gara, baina min izugarria egiten dute eta hartzailearen autoestimua asko kalte-tzen dute. Indarkeriaren funtzioa dominazioa lortu eta berrestea da. Eta horretan mikro horiek garrantzia handia dute. Askok diote geroz eta indarkeria zantzu gehiago daudela. Hori batetik lotuta dago mugimendu feministek egindako lanarekin, izan ere orain gauzez gehiago jabetzen gara. Bestetik, matxismoaren legimitimatea ahultzen ari da. Gaizki ikusita dagoela esango nuke. Aurre egin behar diogu honi bere osotasunean, pentsamendutik hasita.

Ekitaldi ugari antolatu ditu Ibarako Kultura eta Gazteria sailak

Datorren astelehenerako 'Nahia eta Neo: Ezusteko bisita' txotxongilo emanaldia antolatu dute, Ibarako kultur etxean

Erredakzioa Ibarra

Ibarako Kultura eta Gazteria sailak antolatuta, hainbat ekitaldi izango dira kultur etxean, Gabonetako oporraldian.

Batetik, astelehenean, hilak 26, txotxongilo emanaldia egongo da kultur etxean, 3 urtetik gorako haurrentzat. Rosa Martinezen *Nahia eta Neo: ezusteko bisita* ikusi ahal izango da. Rosa Martinezek hainbat motatako txotxongilo eta teknika erabiltzen ditu bere lanetan. Bere lanetako ardatzak antzerkia, txotxongiloak, musika, ipuinak eta neska-mutilen berezko fantasia dira.

Abenduaren 28an, aldiz, ipuin kontaketa bat izango dute, Zurrumurru antzerki taldearen eskutik. 4 eta 9 urte arteko haurrei zuzendutako emanaldia eskainiko dute. Antzerkia, musika eta zirkua uztartzen dituzte eta kale antzerkian zein formatu txikiko aretoetan ibiltzen dira. Umorezko antzerkia egiten du taldeak, 2007. urteaz geroztik.

Abenduaren 30ean magia izango da nagusi Tor magoarenkin. Tor magoa ETB 1 eta ETB 3ko *3txulo*, *Sorgintxulo* eta *Olen-tzerri kantuan* saioetan aritu izan da, besteak beste. Familia osoak ikusteko moduko ikuskizuna da.

EGITARAUA

Abenduak 26, astelehena

Txotxongilo emanaldia. Rosa Martinezen *Nahia eta Neo: Ezusteko bisita*, 17:00etatik aurrera, kultur etxean. 3 urtetik gorako haurrentzat.

Abenduak 28, asteazkena

Ipuin kontaketa. Zurrumurru taldearen *Andrina Basandrina*, 17:00etan, kultur etxean. 4 eta 9 urte arteko haurrentzat.

Abenduak 30, ostirala

Magia emanaldia. Tor magoaren *Hator magiara*, 17:00etan, kultur etxean. Familia guztientzat moduko ikuskizuna.



**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

Atrakzioak jarriko dituzte

Oria merkatari elkarteak Gabonetako kanpainaren barruan umeentzako jolasez gain, erakusleihen lehiaketa eta txekeen zozketak egingo ditu

Jon Miranda Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalaren laguntzarekin atzo piztu zituzten Gabonetako argiak herrian. Saltokien eskariz orain arte baino eremu zabalagoetan jarri dira apaingarriak: Errota, Larrea eta herriko sarrerak ere argiztatu dira Kale Nagusia eta Kale Berriarekin batera. Gabonetako argiak jartzeko ekarpen ekonomikoa egin duten komertzioek atarian lore bat erakutsiko dute Eguberriek irauten duten bitartean.

Era horretan eman diote hasiera Oria merkatari elkartearen biltzen diren saltokiek Eguberri-tako kanpainari. Bihartik urtarri-laren 6ra bitartean umeentzako jolasak egongo dira herriko bi gunetan, aurtun lehenengo aldiz: Errebote plazan karrusela eta ohe elastikoak jarriko dituzte eta Txistulari plazan *olla* txiki bat egongo da.

«Era honetara, kontsumoa areagotzeko asmoz herriko beste gunetara zabaldu nahi dugu Gabonetako giroa», esan du Aitziber Cenzano merkatari elkarte-ko lehendakariak. Euro bat kostako da itzuli bakoitza eta elkarte-ko establezimenduek txartel batzuk izango dituzte oparitan emateko.

Aurtun lehen aldiz, herriko bi ikastetxeetako gazteekin elkarlanean jardungo dute merkatariek. Ikas bidaia egiteko diru bilketan ekarpena egingo du Oria elkarteak eta trukean gazteek bi tailer eskainiko dituzte umeentzat. Bihar, 16:30tik aurrera mo-zorro tailerra egingo dute eta prestatutako jantziekin, plazatik abiatuta, desfilea izango da ondoren. Urtarrilaren 5ean, berriz, 11:00etatik aurrera, Gabonetako dekorazioaren inguruko tailerra eskainiko dute.

ERAKUSLEIHOEN LEHIAKETA

Merkatarientzat garrantzitsua izaten da Gabonetako kanpaina eta horregatik ahalegin berezia



Merkatari elkarte-ko kideek Eguberri-tako ekimenak aurkezteko unean. J.M.

egiten dute kontsumoa areagotzeko. Esate baterako, aurtun elkarte-ko kideek erakusleihoak apaintzeko ikastaroan parte hartu dute eta egun hauetan praktikan jarri dute ikasitakoa, txukun-txukun prestatu baitituzte euren saltokiak. Izena eman duten saltokiek argazkia bidali eta lehiaketa batean parte hartuko dute.

Oria merkatari elkarteak Facebook-en orria ireki du eta bertan ikusgai izango dira lehiaketan parte hartu duten erakusleihoak. Bertan bozkatu ahal izango dute herritarrek gustukoenaren alde eta boto gehien dituen erakusleihoak bi pertsonentzako afaria irabaziko du. Epaimahaiak, bestalde, beste sari bat banatuko du eta kasu honetan ere, beste bi pertsonentzako afaria egongo da jokoan. Gainera, Facebook-en botoa ematen dutenen artean 40 euroko erosketa bonua zozkatuko da.

Kontsumo txeki gehiago ere zozkatuko ditu Oria merkatari elkarteak. Urtarrilaren 4ra bitartean elkarte-ko kide diren establezimenduetan erosketak egiteagatik txartelak jasoko dituzte bezeroek. Betetzen diren afitxa guztien artean hiru sari zozkatuko dira: 360 euroko hiru txeki saltokietan gastatzeko.

Gainera, urtero bezala, Behar Zana elkarte-koekin elkarlana egin dute Amasa-Villabonako merkatariek. Saskiak zozkatzen ditu elkarteak urtero eta horietako hiruetan 200 euroko txekia jarri dute merkatariek eta beste batean 1.000 eurokoa, beti ere Oriako kide diren saltokietan gastatzeko. Astelehenean jakinarazi zituzten saridunak.

EROSKETAK EGITEKO KARROA

Nobedade bat dakar Oria merkatari elkarteak Gabonetako kanpainarekin batera: erosketak egiteko lau karro jarriko dituzte bezeroen eskura. «Kargatuta joaten dira maiz eta erosoago ibil daitezten elkarte-ko kide diren lau dandatan utziko ditugu karroak», esan du Cenzanok. Saltoki batean karroa hartu, etxean erosketak utzi eta gero Oriako bazkide diren dendetako batera itzuli beharko dute. «Behar bezala adierazita egongo da karroan zein lekutan utzi daitekeen».

Elkarte-ko establezimenduen arteko kolaborazioa hobetu nahi dute ekimen honekin, bezeroentzat zerbitzu berria eskaintzeaz gainera. Berritzailea da ideia eta ondo funtzionatzen duela ikusiz gero karro gehiago erosiko dituztela adierazi dute Oria merkatari elkarte-ko kideek.

Liburuaren astea ari dira ospatzen Zizurkilen

Jon Miranda Zizurkil

Emakumearen Eguren harira, 2016ko apirilean estreinatu zen *Konpasetan: bidaia intimo bat emakumeen istorioetan zehar*. Alkizako Amañili elkartearen eskariz sortu zen emankizuna da, eta, funtsean, musikaren historian zehar ibilbide xume bat egitea du helburu.

Bost emakumeren bizitza eta obra errepasatuko dira. Ibilbidea Kuban hasten da eta Euskal Herrian du amaiera. Eskusoinuaren laguntzaz, lehendabizi emakume bakoitzaren eta kantaren istorioa kontatzen da eta ondoren, emakumearekin lotuta da goen pieza eskaintzen da.

Gaur Zizurkilgo Liburuaren astearen barruan 19:30ean Plazida Otaño liburutegian eskainiko dute emanaldia. Bihar, astearekin jarraitzeko, Teodoro Hernandorena XV. Ipuin Lehiaketa-ko sari banaketa egingo da. Udal ordezkariak adierazi dutenez, 400 lan baino gehiago jaso dituzte aurtun. Datorren asteazkenean amaituko da Liburuaren Astea *Ipuinen mundua familian* ekimenarekin eta ikastetxeetako

haurrak ipuinak emango dituzte bertsotan eta bat-batean ariko dira eskualdeko bertsolariak.

MASKOTA AUKERAKETA

Haur liburutegia irudikatzen maskota bat sortu nahi du Zizurkilgo Udaleko kultura sailak. Liburutegiaren umeentzako jarduera guztietan erabiliko da eta horrekin batera, artisten sormena eta partaidetza sustatu nahi dute lehiaketarekin.

Maskotak gogora ekarri behar du liburutegiari izena eman dion Plazida Otaño bertsolaria eta diseinu erraz, moderno eta erakargarria izan beharko du. Euskarri askotan adierazteko modukoa izatea nahi da –tarteka hezurharagizko bihurtuko da–. Maskotak izena eduki beharko du eta diseinuaren tokiren batean agertu beharko du.

Lehiaketan, 16 urtetik gorako edozeinek hartu ahal izango du parte eta proposamena A4 tamainan aurkeztu beharko du martxoaren 31a baino lehen. Apirila bukaera aldera, webgunean iragarriko du udalak sari-duna eta 300 euro eramango ditu irabazleak.

LIBURUAREN ASTEA

ABENDUAK 22, GAUR

19:30. Susana Cecilio akordeoiarekin eta Garazi Kamio narratzaile. Kuban hasi eta Euskal Herrian bukatuko dute ibilbidea *Konpasetan* izenarekin.

ABENDUAK 23, OSTIRALA

17:30. Teodoro Hernandorena XV. Ipuin lehiaketako sari banaketa Atxulondo kultur etxean.

ABENDUAK 28, ASTEAZKENA

17:30. Plazida Otaño liburutegian Ipuinen munduan familian ekimena. San Millan, Pedro Mari Otaño eta Pello Errotako umeek ipuinak bertsotan abestuko dituzte eta bat-batean ariko dira eskualdeko ondorengo bertsolari hauek: Amaia Agirre billabonatarra, Oihana Iguaran amasarra, Haritz Mujika asteasuarra eta Unai Mendizabal zizurkildarra.

Xake txokoa eta ipuin kontaketa saioak ingelesez eta euskaraz

ANOETA // Abenduaren 26tik urtarri-laren 5era arte Hozpel kaleko lokalean xake txokoa zabalduko dute. Bestalde, ipuin kontaketa saioak izango dira euskaraz eta ingelesez 6tik 10 urte bitartekoentzat. Izen emateak, udaletxean, liburutegian edo *tsoto@anoeta.eus* helbidean egin beharko dira.

Gabonetako azoka egingo dute Erniobea ikastetxe-ko ikasleek

AMASA-VILLABONA // Bihar egingo dute Errebote plazan eta postuak 09:30ean ireki ondoren, 10:00etan egingo dute kantu jira. Ordu erdi beranduago toka eta sokatira saioak izango dituzte eta ondoren atsedean hartuko dugu hamaiketakorako. Eguerdian dantza saioa egingo da eta 12:45ean postuak itxiko dituzte.

Abenduaren 18an hamabost urte bete dira Tolosaldeko euskarazko lehen egunkariaren lehen zenbakia argitaratu zenetik. 'Euskaldunon Egunkaria'-ren itxieraren ondorioz, egunkari nazional izatera pasa behar izan zuen 'Egunero'-k. Proiektu hura eredu hartuz sortu ziren, ondoren, eskualdeetako 'Hitza'-k.

Hamabost urte, Tolosaldean egunero idatziz

Igor Agirre

Bi mila eta bateko abenduaren 18a da, asteartea. Tolosaldeko etxeetako postontziek gutun-azal, Eguberrieta-ko eskaintzak iragartzeko al-dizkari eta abarrez gain, albiste bat dute barruan: Iruran bizi den Aitor Mendiluzek hirugarren postua lortu du Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean, eta Jexux Mari Irazu larrauldarra zortzigarren sailkatu da.

Hori izan zen *Tolosaldean Egunero* egunkariaren azalak azpimarratu zuen albistea duela hamabost urte. Ordutik hona, eskualdeko berriak euskaraz eta egunero lantzen zituen egunkaria izan dugu Tolosaldean, hainbat izen desberdin izan dituen mantxetapean. Lehen azaleko aurkezpen laburrean adierazten zenez, «*Galtzaundik eta Euskaldunon Egunkariak* egin duten elkarlanaren emaitza» zen *Egunero*, «Tolosaldeari zerbitzu informatiboa eskaintzeko intenzioarekin jaioa».



2001eko abenduaren 18an argia ikusi zuen 'Tolosaldean Egunero' egunkariak.

AURREKARIAK ESKUALDEAN

Izan ere, ordura arte Tolosaldean informazioa euskaraz lantzeko asmoarekin proiektu batzuk martxan jarri baziren ere, mende hasierarekin batera bultzada berri bat jaso zuen euskarazko komunikabideen alorrak eskualdean. Aurretik, Tolosaldea Berreuskalduntzeko Elkartek *Kontxo* izeneko aldizkaria atera zuen. Argitalpen horrek asko iraun ez bazuen ere, 1990eko abenduan sortu berri zen *Galtzaundi* Euskara Elkartek izen bereko aldizkaria argitaratzeari ekin zion 1991. urteko maiatzean. Baina mende hasierarekin batera, *Txolarre* irratiak bere uhinak lehen aldiz zabaldu zituen 2000. urteko abenduaren 26an, eta *Tolosaldean Egunerok*, *Galtzaundi* aldizkaria argitaratu eta hamar urtetara kalera-tu zuen bere lehen zenbakia.

Joxemi Sai-

zar tolosarra izan zen *Egunero*-ren zuzendaria. Garai hartan *Galtzaundi* aldizkariaren koordinatzailea zen Saizar. «Bilera potolo bat» gogoratzen du Saizarrek aitzindari izango zen proiektu horri forma emateko giltzarri moduan. Bileraren data ere gogoan du: irailaren 11, dorre bikien eraso gertatu zen egun berbera. Denboraren poderioz, bilera haren kokalekua ere bitxikeria bilakatu da; gaur egun, *Eguneroren* oinordekoa den *Tolosaldeko Atariaren* egoitza den eraikinean egin baitzen bilera hura. Garai hartan, Tolosaldea Garatzen zegoen bertan.

Ordutik aurrera, proiektua egingarri izateko prozesua indarrean jarri zen. Adibidez, lan taldeko kazetariak hautatzeko azterketak egin ziren eta jende ugari aurkeztu zen Aitzol euskaltegiak Tolosako Euskal Herria plazan zuen egoitzara. Alor teknikoa *Euskaldunon Egunkariatik* landu zuten eta Tolosaldeko euskarazko egunkariaren hastapenetan garrantzia berezia izan zuen pertsona bat ere aipatzen du Joxemi Saizarrek: Enekoitz Esnaola. Garai hartan, *Egunkariako* kazetaria zen Esnaola azpeitiarra eta gaur egun, *Berrian* dihardu lanean.

Kazetaren egoitza Tolosako Araba etorbidean kokatu zen, Tolosako Udalak utzitako lokal batean. Hasieran batean, azpi-

Sustapena Abenduak 9 - Urtarrilak 5

izarrez beteriko gabonak

Musika, magia eta espektakuluen izarrek beteko dituzte Tolosako kaleak

1^{er} GAINERA

6.000 €

sartan

100€ko 60 erosketa txeke



Tributo a Fito & Fitipaldis

Bualá
Lauroba

Mago Eriz

Dirt, jump-trial

Baobas

Kantu kolore

Deabru beltzak

DJ Josu

Zapatos en el aire

**Tolosa
& Co**

eskualde bakoitzean azpiordezkaritza bulego bat izatea pentsatu bazen ere, berehala ikusi zen ezinezkoa zela ideia hori gauzatztea.

GERTUKO INFORMAZIOAREN TALAIA

Maila honetako proiektua mar-txan jartzeko Tolosaldea eremu egokia zelako hautatu zuten. *Eguneroren* bitartez, bailarako herri askok egunkari paperean beren tokia izatea lortu zuten. Joxemi Saizarrek gaineratzen duenez, «*Egunero* iritsi arte, eskualdeko herri txiki askotako albisteak ez ziren inon agertzen. Euskaraz behintzat ez, eta gaztelaniaz ere, oso gutxi».

«**‘Egunero’ iritsi arte, eskualdeko herri txiki askotako albisteak ez ziren inon agertzen**»

JOXEMI SAIZAR
‘EGUNERO’-REN ZUZENDARIA

Hasiera hartan, *Eguneroren* zortzi orriak betetzeko adina informaziorik ez izateko beldurra ere bazuten lan taldean. Hala ere, berehala lortu zuten eguneroko orriak osatzeko lain eduki biltzea. Hasiera hartan, 10.000 ale doan banatzen hasi ziren eskualdean zehar, sozializazio kanpaina moduan. Hala ere, gero, aleen tirada gutxitu egin zen eta nahi zuenak, soilik, jaso zuten *Egunero* etxean.

LEHENENGO ALEA

Egunkaria martxa jarri aurretik zero zenbaki ugari egin zituzten erredakzioan, egunero egunkari bat osatzeko martxa hartzen trebatzeko helburuarekin. Baina iritsi zen lehenengo zenbakia kaleratzeko ordua. Joxemi Saizarren gidaritzapean, honela banatu ziren erredakziozko zereginak: Tolosako albisteak lantzen, Leire Montes eta Aitor Elduaie zeu-



Joxemi Saizarren gidaritzapean aritu zen ‘Egunero’-ko lantaldea. ATARIA



2001ean egunkaria kaleratzearekin batera aurkezpenak egin ziren herrietan.

den; Anoetaldean, Garbiñe Mendizabal; Alegialdean, Maider Jauregi; Ibarraldean, Iratxe Etxebeste; eta Villabona-Aiztondoko ardura Unai Urreagak zuen.

2001eko abenduaren 18 hartan, egunkaria kaleratzearekin batera, aurkezpenak egin ziren Tolosan, Ibarra, Anoetan, Villabona eta Alegian. Udaletxeetako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkari- ezagun ugari ere gerturatu ziren aurkezpen ekitaldietara, baita *Euskaldunon Egunkaria*ko arduradunak ere. Harrera beroa egin zioten labetik atera berria zen *Egunerori* eta ordutik aurrera, asteartetik igandera argitaratu zen, etenik gabe.

TOLOSALDETIK EUSKAL HERRIRA

Bere ibilbidea hasi eta gutxira baina, 2003ko otsailean, Tolosaldea mailako egunkaria izatetik egunkari nazional izatera pasa behar izan zuen *Egunerok*. Zehazki, 2003. urteko otsailaren 20ko ordu txikietan jasotako dei batekin ohartarazi zuten *Eguneroren* zuzendaria gertatzen ari zenaz: «Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuen eta egunkariarekin harremana zuten hainbat pertsona atxilotu zituen».

Egoeraren larritasuna ikusirik, Tolosaldeko egunkariaren mantxetak nazio mailara egin zuen salto. Horrela, Euskal Herriari *Egunero* izena hartu zuen ordua arte *Tolosaldean Egunero* jartzen zuen mantxetak. Bitartean, Tolosaldeko albisteak *Galtzaundi* izeneko egunkarian jaso ziren.

Otsailaren 21erako bi egunkariak, nazio eta eskualde mailakoa, kalean ziren. Euskal Herriari *Egunero*, orduko *Egunkariako* kazetariak ekoitzi zuten *Tolosaldean Eguneroren* egoitzan. Eta *Galtzaundi* izenpean kaleratu zen eskualdeko egunka-

ria *Galtzaundi* Euskara Elkartearen egoitzan osatu zen. *Galtzaundi* egunkariaren lehen zenbaki hori, fotokopien bidez argitaratu zen. Hasieran, tamaina txikiko hainbat *Galtzaundi* egunkari atera ziren, nahiz eta ondoren, 2003ko otsailaren 27ko ostegun gizenan, ohiko formatura itzuli zen.

Euskaldunon Egunkaria itxi zutenean, inauteriak gainean zeuden eta informatiboki eta publizitarioki data garrantzitsua zen hori dagoeneko *Galtzaundi* izenarekin finkatu zen egunkariarentzat. Hasiera batean egunkaria *Galtzaundi* Euskara Elkartearen egoitzan egiten jarraitzea pentsatu bazen ere, egoera horrek teknikoki zituen zailtasunak ikusita, *Eguneroren* egoitzara bueltatu ziren eskualdeko kazetariak. Beraz, egoitza berean osatu zituzten *Galtzaundi* herri egunkaria eta *Egunero* nazionala. Eskualdeko mailako kazetari- eguerdirako bukatzen zuten beren egunkaria, eta nazionalekoek arratsaldean osatzen zuten bestea.

IA 4.000 ZENBAKI EUSKARAZ

2003. urteko ekainera bitarte argitaratu zen *Egunero* nazionala. Orduan jaio zen Berria, *Euskaldunon Egunkariaren* oinordekoa. Eta horrekin batera, hasieran *Tolosaldean Egunero* zen egunkaria, gerora *Galtzaundi* izena hartu zuena, *Tolosaldeko Hitza* bilakatu zen. 3.014 zenbaki egin zituzten guztira izen desberdineko eskualdeko egunkari horiek, 2013ko udazkenean Tolosaldeko ATARIA sortu zen arte. ATARIAN elkartu zen *Galtzaundi* aldizkariaren aleak kontuan hartuta, eta orain arte kaleratuta Tolosaldeko ATARIAREN egunkariak nahiz astekariak gehituz gero, gaurko ale honekin, 3.990 zenbaki argitaratu dira eskualdeko informazioa euskarazko lantzen. Ibilbide luze eta oparoa, Tolosaldeko informazioa euskaraz egunero lantzen.



sarrerak



Atarikideentzat
sarrera pareta dugu
ENE KANTAK
ASTONAUTAK

Abenduak 28, asteazkena
17:00etan
Tolosako Leidorren



Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak** arte:
943 65 56 95 edo www.ataria.eus



ORIA  BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

1966an Alpino Uzturre elkarteak Pirinioetara antolatu zuen mendi irteeraren proiektzioa emango dute gaur kultur etxean 19:00etan, beste bi film laburrekin batera

50 urteko mendi irudiak

Joxemi Salzar Tolosa

Mende erdi hone-tan gauzak asko aldatu egin dira. Baita mendian eta mendizaletasunean ere. Alpino Uzturre elkarteak lehen espedizio garrantzitsua antolatu zuen duela 50 urte Pirinioetara. Tartean zegoen Angel Lerna donostiarra, eskuetan zortzi milimetroko kamara zuela. Hark hartutako irudiak ikus ahal izango dira gaur. Beste begi batzuekin ikusiko dituzte esperientzia bizitu zuten mendizaleek.

Hamarkada batzuk atzera egin beharra dago. Alpino Uzturre elkarteak sortua zen 1958an. Hasierako ilusioekin indarberrituta, bere aktibitateak burutzen hasi zen. «Garai hartan Pirinioetara joatea ez zen gaur bezain erraza, benetako espedizioa zen», adierazi du Miguel Angel Bermudezek. Kide batzuk bere kontura joaten ziren tarteka, baina talde handian antolatuta joateko 1966ko uda arte itxaron behar izan zuten.

Autobusa alokatu eta astebe-terako plana antolatu zuten Piedrafitan aldean. Barrualdea eta gainaldea edeki bete zuten motxila, denda, piolet, kranpoi, janari, edari eta bestelakoekin. «Aurreko astean Igaratzan izan ginen eta larruzko bota berriak estreinatu nituen, babak eginez oinetan. Ez ziren sendatu, baina ez nuen joan gabe gelditu nahi.



Taldeko kide batzuk Balaitouseko gailurrean. ATARIA

BIDAIA LUZEA

Argazki batean elurtegi batean zapatilak jantzita ditudala agertzen naiz alabarekin», dio Gorostidik. Denak ez ziren tolosarrak, aipatutako Lerna donostiarra eta ordiziar batzuk taldean ziren. Eta apaiza ere ez zuten falta, beste askotan bezala, duela gutxi hil den Bittor Arozena sakramentinoa.

Abiatu eta berehala izan zuten matxura. Autobusaren balezta hautsi zen Atalluko tunelera iritsi baino lehen. Jesus txoferrak

eta laguntzaileek matxura konpontzeko ordu batzuk behar izan zituzten. Atzerapenarekin eta garaiko errepide estu eta kurbatsuekin, herri eta hiri guztien erdialdetik pasatuz, uste baino beranduago iritsi ziren Sallent de Gallegora egun osoko bidaiaren ondoren. «Gaua pasatzera Piedrafitara iristea pentsatzen genuen, baina ez ginen iritsi, Sallenten gelditu behar izan genuen. Ahal zuen bezala kokatu zen jendea plaza ondoan utzi zieten lokal batean. Etxe batean lo egin genuen bakarrak nire alaba txikia eta ni izan ginen, gizon handi bati pena eman ziolako ume txikia horrela ikustea», gogoratu du Gorostidik.

Hurrengo goizean traste gehienak mandoen gainean eta beste asko motxiletan kargatuta, joan ziren Alfonso XII aterpera, Piedrafitan, Respomuso urtegiaren ondoan, eta hura izan zen ibilaldietako abiapuntua, 2.200 metrotara. Batzuk dendetan egin zuten lo eta beste batzuk aterpean. Balaitous, Gran Facha, Infiernos, Tebarray eta beste mendi batzuk igo zituzten. Askorentzat lehen hiru milakoa izan ziren eta hori xanpain-

ra gonbidatuz ospatzeko ohitura izaten zen orduan. Taldeko gazteenak eskalatzen ibiltzen ziren eta Crestas del Diablo famatuak igotzeko aprobetxatu zuten.

«Egun batzuetarako joan ziren eta itzuli zirenerako ahal genuen janaria gorde genien, gosez etorriko zirelako», dio Gorostidik. Apaizak bere lana egiten zuen eta meza ematen zuen eta meza-laguntzailerik ez omen zitzaion falta, denek ardoa nahi izaten zutelako. «Eta ardoa urritzen zenean boluntariorik ez zen falta herrira jaisteko erostera», aipatu du Bermudezek.

Gaur izango da aukera orduko esperientziak eta kontuak berri-tzeko Tolosako kultur etxean 19:00etan. Espedizio hartako kide batzuk bertan izango dira Angel Lerna eta Miguel Angel Bermudezek antolatu duten emanaldian. Aipatutako bidaiarekin batera, *A través del Pirineo* izenburupean beste bi saio izango dira: 1967an Alpinok Viadosko aterpera antolatu zuena Aneto, Posets eta beste mendi batzuk igoz: *Una semana en Viados*. Eta Lerna berak 1974ean parte hartu zuen Tximist-Everest espedizio famatuko irudi batzuk: *Imágenes para el recuerdo*.

Guztira hiru film labur eder izango dira aspaldi pasa ziren garai horiek gogora ekartzeko.



Emakumeak ere izan ziren espedizio hartan. ATARIA

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Kudeaketa planari baiezkoa eman dio Enirio-Aralar Mankomunitateak



Ordiziako udaletxean egindako Enirio-Aralar Mankomunitatearen osoko bilkuraren bi une. A. VIERBÜCHER/GOIERRIKO HITZA



Eniritik Igaratza arteko oinezkoen bidea ibilgailuentzat egokitzea ere onartu du osoko bilkuran

Imanol Garcia Landa

Enirio-Aralar Mankomunitatearen osoko bilkura egin zuten herenegun arratsaldean eta bi gai nagusi onartu zituzten. Batetik, 2015-2019 legealdiko kudeaketa plana, eta, bestetik, 2017. urtean Eniritik Igaratza arteko oinezkoen bidea ibilgailuentzat egokitzea. Mankomunitateak «bere mendiko beharrak identifikatu eta lehenasunak jarri» dituela zehaztu du bidali duen oharrean: «Lehenasun horien artean daude irisgarritasunarekin lotutako azpiegitura sarea egokitzea, larre garbiketa lanak egitea eta txabolak egokitzea. Inbertsio behar hauek Gipuzkoako Foru Aldundiari luzatu zaizkio».

Mankomunitateko beharren zerrendari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek aurreko astean onartutako ebazpenari erantzunez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Legealdiko Kudeaketa Plan bat landu duela azaldu dute Mankomunitatetik, eta osoko bilkurak berea egin duela. «Lau urteko plan hau 2 milioi euroekin hornitua izango da eta Mankomunitateak identifikatu dituen inbertsio beharrei aurre egiteko zuzendua dago», zehaztu du.

Bileraren amaieran Mankomunitateko lehendakaria eta Ordiziako alkatea den Jose Miguel Santamariak adierazi zuenez, «egun historikoa izan da gaurkoa. Artzain eta abeltzainei esker

daukagu egungo Aralar eta gizarte hau zorretan zegoen urte askotan bere bizi eta lan baldintzak egokitzeko erraztasunik eman ez diogun sektore honekin». Hurrengo pausoa aldundiarekin hitzarmena sinatzea eta Enirio eta Igaratza arteko bidea egokitzeko lanak egiteko prozedura martxan jartzea izango dela azaldu du Santamariak, eta gaineratu duenez, «erabaki honek artzain eta abeltzainen elkarlana eta konfiantza indartzen lagundu duelakoan nago, hauei esker lortuko baitugu gure mendietako natur balioen kontserbazioa».

EH BILDU-TIK EAJ-RI KRITIKA

Bi gaien onarpena bozkatzerakotan, Mankomunitatearen 15 udalerrietatik hamarrek eman zuten baiezkoa: Ordizia, Altxaga, Beasain, Gaintza, Lazkao, Ataun, Amezketaketa, Orendain, Arama eta Abaltzisketa. Baliarraingo ordezkaria abstenitu egin zen, eta lau udalerritakoak, bilera lekura joan baziren ere, ez zuten bileran parte hartu: Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta eta Zaldibia.

Azken lau udalerririk horietan EH Bilduk du alkatetza, eta baiezkoa eman duten hirutan ere bai, hau da, Amezketaketa, Orendain eta Ataun. EH Bildutik azaldu dutenez, Aralarko gaiaren inguruan «2016ko udan barne dinamika bat martxan jartzea erabaki genuen, pertsona eta eragile ezberdinen iritzia jaso eta oinarritzeko adostasun zabalean lortzeko asmoz». Dinamika horren ondorio izan dira, EH Bilduk Mankomunitatean «defendatu dituen ekinbide guztiak», zehaztu dutenez: «Goroskintxurainoko pistaren egikaritzatik hasi, 2003tik blokeatuta zegoen

gaia, eta parke naturalaren inguruko erabakiak hartzeko plan estrategikoaren gauzapeneraino».

EH Bilduren posizionamendua «argia» dela diote: «Ondarea konpartitzen duten pertsona ororen beharrei ahalik eta modu egokienean erantzutearen aldekoa eta auzi honetan eragina duten faktore guztien arteko oreka bilatzearen aldekoa». Irailaren 19ko Mankomunitatearen batzarrean *Egitamu planaren berritze proposamena* horregatik eraman zuela gaineratu du: «Honen bidez, etorkizunean nolako Aralar nahiko genukeen guztion artean hausnartzeko tartea hartzea eta plan bat osatzea proposatu genuen, hurrengo urteetan hartu beharreko erabakiak lehenasunen arabera zein behar zuten izan zehazteko».

EH Bildutik EAJri kritika egin diote: «Etengabe eztabaida pistak bai/pistak ez parametroetara eraman nahian ibili da. Hau tamalgarria dela uste dugu, Aralarren moduko ondare baten gainean modu estrategikoan pentsatu eta erabakiak hartu beharrean, berehalako interes eta alderdikoiei soilik erantzuten dieten pausoak eta erabakiak

hartu baititu». Horren «adibide garbiena» mankomunitateko batzarra izan dela esan du: «Oinarri teknikorik gabeko proiektu jakin batzuen aldeko diru partidak mahai gainean jarri zituen, eta hau xantaia egiteko erabili».

Era berean, Amezketaketa, Ataun eta Orendaingo udal ordezkarien jarrera kritikatu du EH Bilduk: «Pertsona hauek ez dute Tolosaldea eta Goierriko ordezkarien artean adostutakoa defendatu. Ez dute zintzo jokatu barne dinamikarekiko, eta horrela EAJren estrategiaren gati-bihurtu dira».

«AHAZTU EZINEKO EGUNA»

Xabier Iraola Enba sindikatuko koordinatzaileak azaldu duenez, «abenduaren 20an ahaztu ezineko eguna izango da Gipuzkoako nekazaritza sektorearentzat, azken urteotan egin gabe utzi diren azpiegiturei argi berdea eman zien batzarra ospatu baitzen».

Iraolak gaineratu duenez, «batzar aretoan ederki asko nabarmendu zen azken hilabeteotan bizitu dugun sestran izaniko alde bakoitzak Aralarkoari ematen dion garrantzia eta hala, bertan ziren, aurrez pankarta aurre-

an egondako ekologista bakan batzuk, eta, bestalde, beren eguneroko bizi eta lana mendian egiten duen abeltzain mordoia». Iraolak dioenez, «benetan hunkigarria izan zen abeltzainek erakutsitako erantzun indartsu eta baketsua».

Bestalde, Iraolak bere esker ona azaldu die baiezkoa bozkatu zuten udal ordezkariak eta «gure ohartarazpena, joko-zelaira ateratzeko gai izan ez zirentzat». Hemendik aurrera, Iraolak gaineratu duenez, «sekulako lana dugu paperean jasotako plangintzak gauzatzen, baina argi dugu, [bilkuran jasotako] indarraz baliatuta, elkarlanean, abeltzainak eta udal ordezkariak, beste behin ere, aurrera egingo dugula».

«ABELTZAINAK EZ DIRENAK BAZTERTZEN DIRA»

Bere aldetik, Landarlan Ingurumen Elkartek bilkuran gertatutakoaren iritzia eman du: «Berriro ere Mankomunitateak artzainak eta abeltzainak ez diren herriarrak baztertu ditu, haien iritzia kontuan izan gabe eta Aralarren interesatuta dauden sektore ezberdinekin bildu eta eztabaidatu gabe. Aralar Natur Parkea dela ezkutatu eta bere kontserbaziorako diren mugak aintzat ez ditu hartzen, eta artzain eta ganaduzaleak alde batetik eta naturazale eta ekologistak bestetik aurrez aurre jarri nahi ditu».

Landarlanetik gaineratu duteenez, «harrituta geratu gara jakitean bilkuran eztabaidatu behar ziren gaietako dokumentazioa lau egun lehenago besterik ez dutela jaso udal ordezkariak; horrelako erabakiak hartzeko denbora oso gutxi, udal ordezkari batzuek adierazi duten bezala». Bestalde, kexu azaldu da Landarlan: «Mankomunitateak oraindik, Goroskintxuko pista amaituta dagoen arren, ez digu bidali ingurumen jarraipenerako programa, gure informazio eskubidea urratuz».

Aldundiaren kudeaketa plana kritikatu du ere: «Pistak justifikatzeko prestatutakoa da, eta artzaintza eta abeltzaintzaren aldeko txostenak besterik ez ditu kontuan izan, eta ez Natur Parkearen balio eta mehatxuei buruzkoak diren beste txosten piloa».



OSTEGUNA, 2016KO ABENDUAK 22
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana, Goltz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu, Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Igande eguerditan ikusgai dago jaiotza baina aldeztu aurretik deituta ordua eskatzeko aukera ere badago. J. MIRANDA

Garai bateko ofizioak, jaiotzan

Luis Ugartek prestatutako jaiotza ikusgai izango da Errege eguna bitartean Zizurkilgo Arantzazuko Amaren elizan

Jon Miranda Zizurkil

Hiruzpalau urte dira Ugartek jaiotza jartzen duela Zizurkilgo elizan. Aurretik Villabonako Kuxako erakusleihoan jartzen zuen baina egoitza berritu zutenean tokirik gabe geratu zen. Zazpi metro luze eta beste bi metro zabalera ditu aurten jarri duen jaiotzak, hamabost metro koadro ditu.

Euskal Herriarekin zerikusia

duten gaiak hartzen ditu oinarritzat jaiotza egiteko: behiak jezten ari den emakumezkoa, meta egiten ari direnak, laiarekin soroan jarduten dutenak edo harraskan arropa garbitzen ari den pertsonaia ageri dira jaiotzan. Baserria, Akezko errotaren kopia, garaia eta egiazko baratza ere baditu.

Jaiotza biziduna da, pertsonaia horiek guztiak mugitu egiten dira, horretarako propio ekarritako motore txikiekin. Aur-

tengo nobedadeetako bat, elkarrekin talka egiten duten bi aharri.

Eskuz egin du lan Ugartek eta ia urte osoa ematen du hori prestatzen. Orain, ikusgai izango da Eguberriek irauten duten bitartean eliza zabalik izaten den garaian. Igande eguerditan meza ondorenean ikusi ahal izango da eta inork bisitatu nahiko balu, aurrez hots egin dezake telefono honetara: 943 69 11 64.

OSTEGUNA 22

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Alegiako Gaztetxearen 29. urteurrena. Ikus-entzunezkoa. *Ne-pal nere begietatik*, Gari Zubillagaren eskutik. 19:00etan, gaztetxean.

Anoeta. Loatzo Musika Eskolako ikasleek kontzertu berezia eskainiko dute, 18:00etan, elizan.

Ibarra. 16:30ean, Gaztelekutik abiatuta 6 eta 10 urte arteko gazteak altxoraren bila jokoan ibiliko dira Txiribitu eta gazte hezitzaileen laguntzarekin. Musika ere egongo da.

Irura. Txistu eta eskusoiuuna emanaldia Eguzki-Txoko zahar egoitzan.

Tolosa. Tolosa&Co-ren eskutik DJ Josu. 20:00etan, Trianguloan.

Zizurkil. *Konpasetan, bidali intimo bat emakumeen istorioetan zehar.* Susana Cecilio akordeoiarekin eta Garazi Kamio narratzaile. Ibilbide Kuban hasi eta Euskal Herrian bukatuko dute. Liburuaren Astearen barruan, 19:30ean, Atxulondo kultur etxean.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

Eskualdeko berriak, Irene Arinen *Kale Kantotik*, Elena Egiuren abokatua, Agurtzane Larrañagarekin makrobiotikaren tarte eta lehiaketak, deitu 943 698038ra edo whatsapp mezua bidali 687410033ra 10:45etik 10:55era. Azokako saskia opari.

11:00-12:00. Hamaiketako.

Alegialdeko albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko jaiak.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00-20:00. Goizeko saioak utzitako onena.

21:00. Ataria iluna.

+ FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Olarreaga Aranburu, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 670128.

Gaukeoa. Morant Barber, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 673849.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Oraindik orain eguraldi nahiko motelarekin jarraituko dugu, berriro ere eguraldi okerrera egingo du. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko zaigu, zerua nahiz eta estalita egon, ez du euri askorik egingo. Tarteka-tartek, hegoaldeko batik bat, zaparradarren bat etorriko da, batez ere eguren lehena zatian eta amaieran. Giro ezatsegina geratuko zaigu. Tenperaturak hala ere, zertxobait gora egingo du.

Bihar. Oraindik ere hego-mendebaldeko haizea nagusituko zaigu baina jada eguraldia dezentez hobea etorriko da. Hodeiak eta ostarteak nagusituko dira, batez ere eguren erdiko orduetan. Hasieran eta amaieran hodei gehiago ikusiko ditugu. Tenperaturak dezentet egingo du gora. Goietan aire masa epelagoa sartuko da. 15-16-17 gradutan kokatuko dira balio altuenak.

makrobiotika bidalaria
solasaldia eguraldia
ataria iluna kokondo
(h)ari naizela azoka
hauspoartean
entzuteko jaiak

ataria
Irratia
107.6 fm
www.ataria.eus



albisteak lehiaketa
kantazgora! artea
pasahitza errezeta
ekokultura kalekantotik
eutsigolaria! zebrabidea
psikologoa hamaiketako